



ZORNOTZAKO BARNETEGIA

Euskara ikasten lagunduko dizu ARGIAk



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zornotzako barnetegian ARGIA erabiltzen dute euskara ikasteko. Hori entzun dugu orain aste batzuk. Eta ARGIAko lantalde guztia emozionatuta, noski! "Euskararekiko harremana bultzatzeko tresna egiten dugu", "euskara ikasleei euskal prentsan murgiltzeko aukera ematen diegu"... zirrara zurrunbiloaren erdian baten batek botatzen duen arte: "Hau komunitatean sartu beharra dago!". Hor bukatzen da batzuen orgasmoa eta nire txanda heltzen da. Beraz, hemen natorkizue Zornotzako barnetegian ARGIArekin daukaten harremana kontatzera.

Egia da, agian ez horren modu esajeratuan, baina Zornotzan lortzen dutela ikasleen eta ARGIAren artean *feeling*-a sortzea. Urteak dira harpidedun direla, eta ariketa ezberdinak egiteko baliatzen dituzte testuak: hiztegia lantzeko, irakurri ondoren leitutakoa azaltzeko, egitura ariketak egiteko... Gaietan anitza izateak jokoa errazten die irakasleei, eta gozagarriago egin ziurrenik ikasleei.

Aitortu digute, ordea, ARGIA.eus webgunea erabiltzen dutela asko, multime-

diako bideoak eta blogetako sarrerak lantzeko. "Jaun eta jabe" edo "Martin" bezalako telesailak baliatzen zituzten orain urte batzuk ikus-entzunezko ariketak egiteko, baina gaur ARGIA bezalakoek duten material guztiarekin ikasleak errealitatera hurbiltzeko aukera ematen du. Gaurkotasunezko gaiak landuz, euskara ariketa soila izatetik, lau paretan artetik atera eta baliagarri ikusten dute; baliagarri informazioa jasotzeko, baliagarri informazioa zabaldu edo partekatzeke, eta baliagarri zure iritzia euskaraz emateko. Ikasleak beren gustuko gaiak euskaraz ere irakur, ikus edo idatz ditza ketela jabetzen dira, eta klastetik kanpo euskaraz funtziona daitekeela ere bai.

Zazpigarren urratsaren bueltan hasten dira eskoletan horrelako materiala lantzen, baina aldi berean Zornotzako barnetegiak urtean zehar bere sare sozialetan zabaltzen ditu interesgarri zaizkion ARGIAko eta beste zenbait euskal hedabidetako elementuak; euren hitzetan "denona baita euskara ahalik eta gehien zabaltzea eta hizkuntzarekiko konpromisoa hartzea". ■

Sarean arrantzatua



Kooperatibagintza "zahar" eta "berria" topaketan

Eskoriatzan Lanki ikertegiaren eskutik IV. Kooperatibagintza Topaketa egin zen ekainaren 10ean Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala gaia ardatz hartuta eta ARGIAko kideek ere hartu zuten parte. Mondragon taldeak aurki egingo duen biltzar nagusian eraldaketa sozialak presentzia handia izango duela ziurtatu zuten antolatzaileek; topaketak balio izan zuen zenbaitek kooperatibagintza "zaharra" deitu dutena eta ekonomia eraldatzailearen bueltan dabilzan eragileak (ARGIA, Olatukoop, Bartzelonako Ciutat Invisible...) harremanetan jartzeko.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:** Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:** Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:** Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:** Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:** Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:** Ostegunetan, 10:30ean.